


3 HELBURU ESTRATEGIKOAK



eta ondorengo helburuetan zehazten dira

hezkidetzako eskolak planteatzen dituen helburu nagusiak

[4/2005 Legearen 29. artikuluan ezarritakoaren ildotik]

1 Hezkuntzaren arloan lantzen den araudiak berdintasuneko eta hezkidetzako mandatuak beteko dituela bermatzen jarraitzea.

2 Emakumeen jakituria eta ekarpen sozial eta historikoa diziplina guztietan txertatzea. Emakume asko dira eta izan dira historia aldatzen lagundu dutenak eta beren diziplinen barruan erreferente handiak izan direnak. Haiek berreskuratzeak, ikusgai egiteak eta gure ikasleei ezagutzera emateak ezabatu egiten du errealitatearen parte hori ezkutatzeko sortzen zen genero-joera, baina gainera, erreferente femeninoak sortzen ditu neskentzat, baita mutilentzat ere.

3 Irudien eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa egitea, bi sexuen irudi plurala bermatuko duena, generorolak eta -estereotipoak alde batera utzita. Generoan ez ezik kultura edo sexu-aukera bezalako alderdietan diskriminaziorik sortzen ez duten hizkuntza eta irudia erabiltzea hezkidetzako eskola sortzeko funtsezko urratsa da.

4 Orientazio akademiko-profesional ez-sexista bermatzea: sozializazio-prozesuan zehar kanpo-eraginak izaten dira gazteengan, erabakiak hartzen dituztenean eragin nahian. Eragin horiek familia-ingurunetik bertatik, adiskideengandik, gazteak xede duen ingurunetik eta lan-merkatutik bertatik etor daitezke. Horiek horrela, irakasleak, ikasleak eta familiak irauten duten genero-estereotipoen jakinaren gainean jarri behar dira eta orientazioan eragina izan dezaketean uste eta aurreiritzi sexistak indargabetzeko bideratu.

5 Berdintasuna sartzea ezkutuko curriculumean eta ageriko curriculumean. Ageriko curriculumetik kontua izango litzateke, besteak beste, hezkuntza-sisteman ezartzen diren edukien berrikusketa egitea, tradizioz femeninoak izan diren eta ikusezin bihurtu diren esferak sartzeko, adibidez zainketaren etika, ikuspegi feministatik begiratuta. Ildo horretan, behar-beharrezkoa da testuliburuek hizkuntza eta irudi inklusiboak txertatzea eta jakintza-arlo guztietan erreferente diren emakumeak barnean hartzea. Ezkutuko curriculumetik, bestalde, irakasleek, familiak eta ikasleek besteekiko interakzioan gauzatzen dituzten arauak, balioak, jarrerak eta portaera berrikusi behar dira. Genero-sozializazio desorekatua eta horrek ikastetxeetan ezartzen diren harremanetan duen eragina aztertu behar dira.

6 Aniztasunaren molde guztiak txertatzea. Ikastetxeetan aurkitzen ditugun desberdintasunak soilik sexuari eta generoari ez dagozkiola kontuan hartuta, hor baitaude, halaber, klase soziala, kultura, jatorriko herrialdea, erlijioa, sexu-aukera eta abar. Hezkuntza-jardunbideari hezkidetzatik ekinez gero, desberdintasun horietako bakoitza aintzat hartzea eta desperekotasunak saihestea bermatuko dugu.

7 Baliabideen eta espazioen erabilera bidezkoa sustatzea. Espazioen banaketak eta erabilerak eta hezkuntza-ingurunearen antolakuntzak ere garrantzizko eginkizuna betetzen dute balio eta arau sozialen transmisioan. Horregatik, espazio eta baliabide horiek modu orekatuan erabiliko direla bermatu behar da.

8 Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta tratua sustatzea. Indarkeria gure gizarte desorekatuen osagai estrukturala da. Hori dela eta, kritikoak izan behar dugu nagusitasun eta mendetasuneko eskema patriarkaletan oinarritutako harremanekin, eta tratua onetan hezi, justiziaren etikatik eta zainketaren etikatik.